



Naroa Antruejo - Miren Allende
Aixerrota BHI, 15-16

Aurkibidea

Iñaki Frieria	3
Sarrera	3
<i>Zureak egin du</i>	
● Kokapena	4
● Gaia	4
● Argumentua	4
● Istorioa.....	5
● Pertsonaiak.....	6
● Egituraketa	7
● Baliabideak	7
● Iritzia	8
Bibliografia eta webgrafia	10

Iñaki Frieria

Iñaki Frieria Urbistondo Barakaldon, Bizkaian, 1962ko irailaren 16an jaio zen euskal idazlea da. Euskal filologia ikasi zuen Gasteizen eta gaur egun itzultzaile bezala lan egiten du. Bere lehenbiziko idazkiak hizkuntza eta hizkuntza gaztazkari buruzkoak izan ziren.

Literaturan, berriz, hasi berria da: 1996an argitaratu zuen lehen liburua, *Izaroko Altxorra*. Hala ere, beste lan asko egin ditu: *Non bizi da bildur?* (1998), *Aska itzazue pottokak* (1998), *Lehorreko paterak* (2001), *Ahots isilduaren bahiketa* (2002) eta *Tiranoko gau gorriak* (2005).

Bere lanik berriena “*Zureak egin du*” (2010) da, irakurri berri dugun liburua hain zuzen ere. Liburu hau idaztea modu bitxian bururatu zitzaion. Eusko Legebiltzarreko itzultzailea izateagatik, itzultzaile lanak egitea egokitu zitzaion tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen elkarte batean. Lan hura burutzen zegoela harritu zuen gauzarik nabarmenena, emakumeek (dependentziaren ondorioz) irtenbidea aurkitzeko kemen falta da. Nahiz eta obra hau idaztea ez zaion erraza egin idazleari, islatu nahi zuena argi eta garbi islatzen saiatu da.



Sarrera

Zureak egin du tituluko nobelan, Iñaki Frierak 2010ean idatzitakoa, emakumeen aurkako indarkeria tratatzen da bereziki. Gure gizartean agerian dagoen gai hori kritikatzan du idazleak eta istorioan, behintzat, horri konponbidea ematen saiatzen da. Obra honetan kazetari batek tratu txarrak jaso izan dituen emakume baten istorioa ikertzen du. Eleberri honen alderdirik aipagarrienetarikoa bat, kontakizun osoan, Sofiaren, tratu txarrak jasotzen dituen emakumearen izena besterik ez agertzea da.

Nobela hau *thriller* moduko bat da, nobela beltza, lau ataletan bereizirik dagoena. Bertan Sofiaren familia eta lagunak aurrez aipatutako egoera latz hura nola bizi zuten kontatzen diote kazetariari, baina Sofiaren adierazpena kontakizunaren amaieran besterik ez da agertzen.

Zureak egin du

Kokapena

Esan bezala, *Zureak egin du* obrak gaur egun gizartean agerian dagoen gai bat tratatzen du. Hortaz, orainaldian gertatzen da bertan narratutako istorioa. Idazleak ez du zehazten kontakizuna non gertatzen den, lekuen izen generikoak besterik ez ditu aipatzen nobelan. Hala ere, nobela Euskal Herriko lurralde batean gauzatzen dela ondoriozta daiteke, ziurrenik kostaldetik hurbil dagoen batean, Sofiaren ahizparekin itsaslabar baten ertzean hitz egiten baitu.

Gaia

Narrazio honen gai nagusia emakumeen aurkako indarkeria da. Egileak gai honetan oinarritutako istorioa misteriorantz bideratzen du, kasu baten ikerketa kontatzean, ia nobelaren azken pasarteraino egia ezkutatzen duelako. Gai horrekin batera beste azpigai asko agertzen dira testuan islatuta, hala nola adiskidetasuna, amodioa, desamodioa, bortizkeria, mendekua, etab.

Argumentua

Tratu txarrei buruzko artikulua idazten ari den kazetari bati bideo bat heldu zaio erredakziora, non gizona bat emakume bat jipoitzen dagoen. Hasieran protagonistari ez zitzaion ideia ona iruditu kasu hori ikertzea, baina denbora aurrera joan ahala, neska jipoituaren ahizpa kasuaren biktima dela konturatzen denean, biktimaren familiarekin eta zenbait lagunekin kontaktuan jartzen da, eta kasua auzitara eramatea bihurtzen da kazetariaren helburu nagusia. Nahiz eta bere burua eta bere neskalagunarena arriskuan jartzen dituen. Bere helburua lortzeko, hainbat lekukoren laguntza jasotzen du.

Istoriaoa

Erredakzioan egun osoa ibili ondoren etxera bueltatzen da gure kazetaria, neskalaguna zain duela. Neskalgunak ospitalean egiten du lan eta egun hartan jazotako kasu arraro bati buruz hitz egiten dio mutil-lagunari, esanez, bere ustetan, tratu txarrak pairatzen dituen emakume baten istorioa ezkututzen dela bertan. Momentu hartan kazetariak emakumeen aurkako indarkeriari buruzko erreportajea prestatzen dagoenez gero, neskalagunak lantokian ezagututako neskaren kasua ikertzeko proposatu eta hark bere lana nondik nora zuzenduko duen pentsatuko duela adierazten dio.

Handik gutxira protagonistari bideo bat heltzen zaio erredakziora, non morroi bat neska gazte bat autotik bortizki atera eta kale erdian jipiotzen ari den. Neskalgunak kontatutako istorioak jakinmina piztu ez badio ere, bideo honek kasua sakonki ikertzeko gogoak sorrarazten dizkio kazetariari.

Hasteko, eraso gertatutako lekua zein den ikertu eta bertara abiatzen da lekukoren batek gertatutakoa hobeto azal diezaion. Behin egoera hobeto ezagututa, erasotzailearen nortasuna ezagutzen saiatzen da. Notario baten bulegora eramaten du ikerketatxo hark eta bertako idazkariak tratu txarrak jasaten dituen emakumea Sofia izena duela esan eta kontakizunean agertzen den lehen testiguarekin hitz egitea ahalbidetzen dio.

Handik aurrera istorioa forma hartzen hasten da. Kazetariak hainbat lekukorekin hitz egiteko aukera du eta oldartzailea notarioaren semea dela kontatzen diote; baita bideoan agertzen den neska Sofiaren ahizpa dela ere, erasotzaileari Sofiaren egonlekua zein den ez aitortzeagatik zigorra jasaten duena. Sofia eta bere senarra zenaren arazoak zekizkien psikologoarekin hitz egitera ere badoa. Hark erasotzailearen aitak bere amari tratu txarrak ematen zizkiola aitortzen dio eta horregatik jokatzeko zuela modu basati hartan.

Kazetariak gehiegi dakienez, erasotzaileak jipoitu eta mehatxatu egiten du, ikerketarekin aurrera jarrai ez dezan. Hala ere, gure protagonistak ez du miaketa geldiarazten, oso urrun heldu baita. Erasotzailearen mehatxuzko deiek ere ez dute gelditzen eta kazetariak, azkenik, bere helburua burutzen du, oldartzailea auzitara eraman ahal izateko proba nahikoak lortzea, hain zuzen.

Pertsonaiak

LEHENENGO MAILAKO PERTSONAIAK

Kazetaria

Istorio osoa kazetari honen pausoetan oinarritzen da, orduan, protagonista dela esan dezakegu. Pertsonaia ausarta da, bere kasua ez den ikerketa egitean, bere burua eta bere neskalagunarena arriskuan jartzen dituelako. Jolas moduan hasten duena, auzitara bidaltzeko helburuarekin amaitzen du. Horretarako tratu txarrei buruzko artikulua idazten du, biktimak merezi duen justizia egiteko. Artikulua osatzeko, beste pertsona batzuen laguntza jasotzen du.

Sofia

Tratu txarrak jasaten dituen neska da, hau da, biktima. Senarrarekin ezkontzean egoera larriagotu egiten da, bere bizitza guztiz aldatuz. Lehengo Sofia alaia eta irribarretsua desagertzen da, Sofia triste eta itxaropenik gabeko pertsona bihurtuz. Kazetariak idatzitako artikulua beraren istorioa da.

Erasotzailea

Hurtzaro zaila izan zuen morroia da. Bere gurasoen etengabeko jipoi eta eztabaidek etorkizun beltza ekarri diote, hau da, pertsona bortitz eta harroa bihurtu da hurtzaroan izan zituen esperientzia zailen erruz. Kazetariak bere lana ez burutzeko helburuarekin, zenbait eragozpen jartzen dizkio.

BIGARREN MAILAKO PERTSONAIAK

Neskalaguna

Kazetariaren neskalaguna da. Ospitalean lan egiten duena eta mutil-laguna kasua aztertzen hasteko konbentzitzen duena.

Idazkaria

Erasotzaileraren aitaren idazkaria da. Kazetariari kasuari buruzko informazio gehiena ematen diona, Sofiarekin lan egin ondoren oso ondo ezagutzen duelako.

Sofiaren ahizpa

Sofiaren ahizpa bideoan agertzen den emakume jipoitua da. Hasiara batean kazetariak Sofia zela pentsatu zuen. Pertsonaia honek kasuari buruzko zenbait datu argitzen dizkio gure protagonistari, bere ahizparen egoerak kezkatzen duelako.

Psikologoa

Istorioaren amaierarantz agertzen da, eta kasua ikertzen laguntzen dio kazetariari.

Egituraketa

Nobela honek egitura lineala du, pertsonaien ekintzak helburu bakar batera zuzentzen direlako. Hala ere, istorioaren zenbait ataletan, pertsonaia batzuen ikuspuntuak azaltzen dira, Sofiak edukitako esperientziak beraiek nola bizi izan dituzten azalduz. Ikuspuntu hauek, kasuaren ikerketa burutzeko lagungarriak dira.

Beste alde batetik, kontaketaaren eraikuntza lau kapitulutan banatuta dago eta bakoitza hainbat ataletan bereizita dago. Horien barruan, momentuan jazotzen ari diren gertakizunetaz gain, lekuko desberdinen adierazpenak ere agertzen dira.

Baliabideak

Elkarrizketak bi pertsonaien artean izan ohi dira. Hauetaz gain, bakarrizketak ere aurki ditzakegu, non protagonistak pentsatzen duena jakinarazten digun.

Nondik jarraitu ez nekiela gelditu nintzen. Atzamarrak zaurira eraman eta hariaz jolasten hasi nintzen denbora irabazteko. (85)

Deskribapenak pertsonaia bakoitzari egokituta daude eta narratzaile protagonistak kontatzen digu istorioa, hau da, pertsonaietako bat da eta beroni gertatzen zaiona ezagutu eta kontatzen diguna.

Igogailuko ispiluak itzuli zidan irudi izutuari erreparatu nion: ezezagun baten isla. Nireak ziren beirazako xaflako begi marroiak, eskumako masaileko orin gorrixka, egun hartan egin gabeko bizarra; baina besterenak ziren begirada larritua eta ezpainen dardara. (12)

Istoriolan inplikaturatuta dago eta lehen pertsona hitz egiten du. Hala ere, pertsonaien adierazpenak agertzen direnean, bakoitzak bere azalpenak ematen ditu.

Sofiaren abokatuak izan nintzen, idatzizko txostenean agertzen den legez, Sofiaren familia etorri zen lehen aldiz nire bulegora aholku bila. (64)

Kontakizunaren estiloa sinplea da, hau da, ulergarria. Bitxikeri bezala aipatu beharra dago nobelaren zehar bakarrik izen bakarra aipatzen dela, "Sofia" izena hain zuzen.

Iritzia

Nobelaren izenburua irakurtzean berehala kontura gaitzke nobelan kontatuko den istoriak mendekuarekin zerikusia izango duela; izan ere narrazioaren protagonistak artikulua idaztean bete nahi duen helburua erasotzailea auzitara eramatea da. Horri lotuta, desamodioa eta indarkeria bezalako gaiak lantzen dira eleberrian. Beraz, nobela honek indarkeria jasotzen duten emakumeei euren egoera salatzen adorea ematen die. Hala ere, publiko guztientzat aproposa da.

Pertsonaiek istorioan duten papera ere aipatu beharrekoa da. Lexiko erraza erabiltzen dute euren arteko elkarriketetan, beraz irakurtzeko erraza eta azkarra da. Era berean, pertsonaiak oso ondo egokituta daude istorioaren kokapen bakoitzean. Hala ere, idazleak ez du pertsonaien deskribapen sakonik egiten; euren adierazpenak ematen dituzte baina, euren buruan kontzentratu ordez, Sofiaren esperientzia kontatzean ipintzen dituzte euren ahaleginak. Gainera, anonimotasuna mantentzeko-edo, idazleak pertsonaien izen generikoak erabiltzen ditu (ahizpa, idazkaria, aita, neskalaguna...).

Horrez gain, idazleak gure gizartean agerian dagoen gai bat nobelan lantzeak kutsu errealista ematen dio nobelari. Idazleak berak, nobela hau idaztera eraman duen tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeen elkarteetan, egiaztatu ahal izan duen bezala, gaur egun emakume asko eta asko daude Sofiaren egoeran eta ez dute egoera latz horretatik ateratzeko kemenik. Hala ere, kasualitate gehiegi gertatzen dira nobelan zehar; hala nola autoaren jabearen inguruko informazioa hain arin lortzea edota kafetegiko bezero gehienek eraso ikusi izatea.

Bukatzeko, esan beharra dago, idazleak kontakizunari ezarritako misterioari esker, irakurlea gehiago jakiteko irrikaz dagoela momentu oro, hau da, nobelaren amaieran zer gertatuko zain eta irrikan dagoela irakurlea.

Bibliografia eta webgrafia

- *Zureak egin du*. Iñaki Frieria. Susa.
- www.wikipedia.com
- kritikak.armiarma.eus
- armiarma.eus
- ikasten.ikasbil.net
- susa-literatura.eus
- idazleak.eus
- www.diariovasco.com/cultura